

14. Datu pertsonalen babesa. Parte-hartzaileek SGAE Fundazioari emandako datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira, eta aplikagarriak izango dira Datu Pertsonalen Babeserako Legea eta indarrean dauden legeak.

15. Arau Orokorrak.

A. Parte-hartzaileek, lehiaketan parte hartzen duten heinean, oinarri hauek osoki onartzen dituzte, baita Epaimahaiaren erabakiak ere. Halaber, SGAE Fundazioari baimena ematen diote irabazlearen datu profesionalak edo/eta argazkiak dituen Sariari buruzko informazioa zabaltzeko.

B. Parte-hartzaileek SGAE Taldea erantzukizun orotatik salbuesten dute, baldin eta haietakoren batek plagiorik edota indarrean dagoen lege-urraketarik egingo balu.

C. Lehiaketa honen ondorioz, SGAE Fundazioak ez du hartzen Sari honen garapenari lotutako erantzukizunik, ez zuzenik ez bigarren mailakorik, baldin eta honako agiri honetan zehaztu ez bada.

D. Erreklamaziorik edo gatazkarik izanez gero, bai parte-hartzaileak, bai antolakuntza Madrilgo Auzitegien jurisdikzioaren mende egongo dira. Uko egiten diote, beraz, beste edozein barrutiren mende egoteari.



INFORMAZIOA

SGAE FUNDAZIOA
SGAE Fundazioaren Arte Eszenikoak
Tel. (+34) 91 503 68 14
artescenicas@fundacionsgae.org
www.fundacionsgae.org

VISIBLE KULTURA ELKARTEA
visible@festivalgayvisible.com
www.festivalgayvisible.com

XI Nazioarteko sariketa **sgae**
Leopoldo Alas Mínguez
Antzerki-testu hauentzat: LGTBI 2017

Egile dramatikoek babesa eman eta lgtbi kolektiboa (lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualak) azaleratzea ahalbidetuko duten testu dramatiko berriak sortzea bultzatzeko xedez SGAE Fundazioak eta Visible Kultura Elkartek deituta antolatzen da:

XI Nazioarteko sariketa

Leopoldo Alas Mínguez

Antzerki-testu hauentzat: LGTBI 2017

OINARRIAK

01. SGAE elkarteko bazkide guztiak aurkeztu ahal dira lehiaketara, edozein nazionalitatekoak izanik ere, Zuzendaritza Batzordeko eta Patronatuko kideak eta aurreko hiru deialdietan saritutakoak izan ezik. Nahi adina antzerki-testu aurkeztu ahal izango da, Espainiako Estatuko edozein hizkuntza ofizialetan idatzita. Testuetako argudioak edo protagonistetako baten profilak izaera gay, lesbiko, transexual, bisexual edo intersexuala (lgtbi) izan beharko du.

02. Aurkeztutako lanek ehuneko ehun originalak eta argitaragabeak izan behar dute. Ezin da aurkeztu aurretik osorik edo zati batean argitaratutako edo antzeztutako lanik, ez grabaketarik, ez proba-saiorik, ez lan ofizialik edo komertzialik, ez eta irakurketa dramatizaturik ere. Ez da onartuko ezein eleberriren ez eta ezein zinema-, telebista-, irratir- edo antzerki-lanen itzulpenik, egokitzapenik edo eraberritzerik. Haatik, epaimahaiak beste sariketa batzuetan saritutako obrak onartuko ditu, betiere, sari edo aipamen hori obrak aurkezteko epea (2017ko martxoak 2) amaitu aurretiko 12 hilabeteen barruan eman bada. Azken 12 hilabete horien aurretik saritutako testuak sariketa honetatik kanpo geratuko dira.

03. Originalak posta elektronikoz bidaliko dira eta gai modura “LAM Sariak” adierazi beharko da eta, ondoren, lehiaketara aurkezteko testuaren izenburua. Posta elektronikoa **bi** fitxategi atxiki beharko dira PDF formatuan:

A. Obrari dagokion testua (egilearen izena adierazi gabe). Lehiaketara aurkeztu den lana gaztelania ez den Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialetako batean badago, egileak gaztelaniazko itzulpena aurkeztu dezake, lanaren jatorrizko hizkuntza ez dakiten epaimahaiakideek erabil dezaten. Egileak gaztelaniazko itzulpenik aurkeztu ez badu, SGAE Fundazioak itzulpena egiteko baimena izango du, epaimahaiakideek lan-tresna bezala erabil dezaten. Itzulpenok suntsitu egingo dira sariaren epaia amaitzen denean.

B. Datu pertsonalak eta harremanetarako datuak, esate baterako, izen-abizenak, egungo helbidea (ohiko bizilekua eta helbide fiskala), helbide elektronikoa eta telefono-zenbakia. Horrez gain, curriculum labur bat, NAN agiriaren edo pasaportearen fotokopia eta egilearen argazki bat atxiki beharko dira. Halaber, SGAE Fundazioaren aldeko egilearen berariazko baimena aurkeztu beharko da, saria gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egiterakoan datu pertsonalak erabiltzeko baimena izan dezan.

04. Obrak **2017ko martxoak 2 eta apirilak 20 bitartean** bidali beharko dira, helbide honetara: artesesenicassgae@fundacionsgae.org, horixe baita SGAE Fundazioaren webgunean agertzen dena: www.fundacionsgae.org.

05. SGAE Fundazioak eta VISIBLE Kultura Elkartek epaimahai bat izendatuko dute. Epaimahai **hori arte eszenikoetan prestigio aski duten profesionalen** osatuko da eta bertako presidentea VISIBLE Kultura Elkarteko Presidentea izango da. Idazkari lanetan, berriz, SGAE Fundazioko ordezkari bat ariko da.

06. Epaimahaiaren erabakia apela ezina da. **LAM 2017 Sariketaren XI.** edizioako sariduna **2017ko abenduaren 31** baino lehen jakinaraziko da. Saria ezingo da partekatu eta ezingo da hutsik utzi. Haatik, Epaimahaiak eskubidea izango du beste testu bati ohorezko aipamena egiteko, egokitzat jotzen badu. SGAE Fundazioak ahalegina egingo du, ahal den neurrian, Epaimahaiko kideen artean espainiar estatuko autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialak dakizkiten pertsonak egon daitezen.

07. Saritutako lanaren egileak BI MILA EURO (2.000 €) jasoko ditu, zergak barne. Gainera, irabazlearen testua SGAE fundazioaren irakurketa Dramatizatuaren Zikloan dramatizatuko da. Indarrean dauden legeek ezarritako zergak ordaindu beharko ditu saridunak.

08. Halaber, lan irabazlea SGAE Fundazioak argitaratuko du hala erabakitzen duenean, idatziz emandako baldintzetan. Lanak deialdira aurkeztutako hizkuntzan argitaratuko dira, edo egileak hala eskatzen badu, gaztelaniara itzulita. Horretarako, egileak berak emango dio itzulpena SGAE Fundazioari.

09. Egileak “**LAM 2017 NAZIOARTEKO XI. SARIKETA**” aipamena gaineratzeko konpromisoa hartzen du, obraren antzezpene, ezarpen eta publizitatearekin lotutako guztiari dagokionean.

10. Saritutako lanaren egileak hitzematzen du SGAE Fundazioarekin dagokion argitaratze-kontratua sinatuko duela, SGAE Fundazioak ezarritako baldintzetan.

11. Saritutako testua jakitera eman ondoren, hautatu ez diren lanen aleak suntsitu egingo dira, eta baita egin diren itzulpenak ere. Ez da alerik itzuliko, ezta itzulpenik ere. Halaber, ez da izango haien gaineko postazko harremanik.

12. Saria erabaki ostean, SGAE Fundazioa, epaimahaiak eskatuta, lanen egileekin jarri ahal da harremanetan, egileek epaimahaiari beren datuak eman nahi dizkieten edo ez erabaki dezaten.

13. Egile irabazleari gonbita luzatuko zaio Sariketaren hurrengo edizioan. Epaimahaiko kide izateko, betiere, bere egoera pertsonal eta geografikoak ahalbidetzen badu.